**BALUARTE**
IRUÑA

Ostirala / Viernes
**APIRILA / ABRIL**
28_




FUNDACION
BALUARTE
FUNDAZIOA

euskarabidea

# ARTXIPIELAGOA

| | |
|---|---|
| **Ainhoa Garmendia** | **soprano/sopranoa** |
| **Andoni Egaña** | **bertsolari/bertsolaria** |
| **Pello Ramírez** | **cello y acordeón/txeloa eta akordeoia** |
| **Garikoitz Mendizabal** | **txistu/txistua** |
| **Germán Ormazabal** | **piano/pianoa** |
| | |
| **Belen Ibarrola** | **imágenes y vídeos/irudiak eta bideoak** |

## PROGRAMA

*Itsasoaren Emazteak* · Pello Ramírez
*Ara Nun Diran* · Jose Mari Iparraguirre arreglo/moldaketa: Javier Belloportu
*Nere Amak Baleki* · Jose Mari Iparraguirre
arreglo/moldaketa: José Antonio Santesteban
*Adio Euskal - Herriari* · Jose Mari Iparraguirre
*Idiarena* · Eduardo Gorosarri arreglo/moldaketa: Ramón Lazkano
*Loa, Loa* · Herrikoia arreglo/moldaketa: Félix Tellería
*Nun Zeran* · Herrikoia arreglo/moldaketa: Francisco Cotarelo
*Hiru Damatxo* · Herrikoia
*Kaia Barrenian* · Tomás Garbizu
*Oñazez* · Herrikoia arreglo/moldaketa: Aita Donostia
*Ala Baita* · Jesús Guridi
*Aldapeko* · Herrikoia arreglo/moldaketa: Aita Donostia
*Aurtxoa Seaskan* · Gabriel Olaizola
*Ume Eder Bat* · Tomás Garbizu
*Adiorik Ez* · Pello Ramírez
*Dantza Nazazu* · Pello Ramírez
*Nere Herriko Neskatxa Maite* · Benito Lertxundi
arreglo/moldaketa: Xabier Otaolea
*Lau Teilatu* · Itoiz arreglo/moldaketa: Xabier Otaolea
*Ilargia* · Ken Zazpi arreglo/moldaketa: Xabier Otaolea
*Txoria Txori* · Mikel Laboa arreglo/moldaketa: Xabier Otaolea
*Xalbadorren Heriotzean* · Xabier Lete arreglo/moldaketa: Karlos Gimenez

DURACIÓN: 90 MINUTOS / IRAUPENA: 90 MINUTU

Al igual que en un conjunto de islas, el espectáculo ARTXIPIELAGOA aúna narración, canción, música, bertsolarismo y vídeo. El bertsolari Andoni Egaña hará las veces de narrador a lo largo de toda la función y le acompañarán la soprano Ainhoa Garmendia, el txistulari Gari Mendizabal, el chelista y acordeonista Pello Ramírez y el pianista Germán Ormazabal. El montaje visual y de imágenes es obra de Belen Ibarrola. La mayoría de los artistas ya se conocían de antemano y habían trabajado juntos en diferentes proyectos, pero nunca llegaron a coincidir todos juntos en un mismo escenario. Por eso, ahora han decidido aunar sus energías y, aportando cada uno su experiencia y conocimiento, forman ARTXIPIELAGOA. Isla a isla, un sólo espectáculo.

ARTXIPIELAGOA ha nacido para ser un espectáculo novedoso, donde la participación del público es imprescindible. Las canciones clásicas y modernas de ayer y de hoy se funden en un todo y el público, tanto joven como adulto, cantará formando un "coro popular". La primera parte del programa tendrá un toque más clásico con temas de compositores clásicos vascos, como Jose Mari Iparraguirre, Gabriel de Olaizola o Jesús Guridi. La segunda parte, sin embargo, constará de canciones más modernas de artistas como Laboa, Lete, Lertxundi, Ken Zazpi o Itoiz. Todo ello con el objetivo de ayudar a difundir el cancionero vasco y volver a fomentar el placer de cantar.

Narrazio, abesti, bertsolaritza, musika eta bideo-proiekzio uztarketa da ARTXIPIELAGOA. Uhartez uharte osatutako emanaldia. Andoni Egañaren irlei eta kulturari buruzko gogoetek gidatuko dute saioa, musika jarriko dute Ainhoa Garmendia sopranoak, Gari Mendizabal txistulariak, Pello Ramirez txelo eta soinu jotzaileak eta German Ormazabal piano jotzaileak, eta Belen Ibarrolaren irudiek osatuko dute saioa. Maiz ibili dira elkarren inguruan sortzaile hauek guztiak, baina lehen aldiz izango dira guztiak batera oholtzan. Bakoitza beretik, eta, halere batera. Uharte, eta, aldi berean, artxipielago.

Atzoko eta gaurko euskal abesti klasiko eta modernoak uztartuko dituzte saioan eta ikuslegoaren parte hartzearekin batera, aretoa "herri-abesbatza" moduko bat bilakatzea da helburua. Ukitu klasikoa izango du egitarauaren lehen atalak, Jose Mari Iparraguirre, Gabriel de Olaizola, Jesus Guridi eta beste hainbat euskal klasikoren musikarekin. Bigarren atalean, berriz, abesti berriagoak joko dituzte: Laboa, Lete, Lertxundi, Ken Zazpi, Itoiz... Izan ere, euskal kantutegia zabaltzen laguntzea eta abesteko zaletasuna sustatzea da emanaldiaren asmoa.



**AINHOA GARMENDIA**
Legorreta, 1974

**soprano** Estudió acordeón, canto y piano en Ordizia con Pello Ramírez y Amalia Ibáñez (Coro Oroitz), antes de entrar en la Escuela de Canto del Orfeón Donostiarra, donde trabajó la técnica vocal y formó parte del propio Orfeón. Continuó sus estudios en la Escuela Superior de Canto de Madrid y en la Universidad de Viena. En 1999 entró a formar parte de la Ópera Estudio de Marsella CNIPAL y en 2001 fue contratada para el equipo fijo de cantantes solistas de la Ópera de Leipzig hasta 2009. Ha cantado en muchos teatros importantes de Europa, así como en la Ópera de Colombia y en Daegu de Corea. En 2007 fue nombrada Voz Revelación en los Premios Campoamor. Desde 2014 es la fundadora y directora artística de la compañía de ópera Opus Lírica.

**sopranoa** Akordeoia, kantua eta pianoa landu zituen Ordizian. Donostiako Orfeoian landu zituen ahotsteknikak eta orfeoiko parte ere izan zen. Madrilgo Goi Mailako Kantu Eskolan eta Vienako Unibertsitatean jarraitu zituen bere ikasketak. 1999an Marsellako CNIPAL-eko Opera Estudioan sartu zen eta 2001ean Leipzigeko Operan kontratatu zuten, abeslari bakarlari gisa. Hantxe egon zen 2009. urtera arte eta han egin zuen debuta bere errepertorioko paper nagusietan. Europako antzoki garrantzitsu askotan abestu du, baita Kolonbiako Operan eta Koreako Daegu Operan ere. 2007an Ahots Errebelazio izendatu zuten Campoamor Antzokiko sarietan. 2014 urteaz geroztik Opus Lirica-ren sortzailea eta zuzendari artistikoa da.

**ANDONI EGAÑA**
Zarautz, 1961

**bertsolari y escritor** Licenciado en Filología Vasca, trabajó como técnico de Cultura en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de 1985 a 1992.



Desde entonces se ha dedicado por completo a la creación cultural. Fue campeón del Campeonato de Bertsolarismo de Euskal Herria en 1993, 1997, 2001 y 2005; y finalista en 1986, 1989 y 2009. Tiene varias publicaciones en su haber: *Zozoak beleari*, un intercambio epistolar con Jon Sarasua; la novela *Pausoa noiz luzatu*, ganadora del premio Euskadi Saria en el área de Difusión; o *Hogeitabina*, libro de reflexiones sobre el bertsolarismo. También ha publicado un disco, *Tximeletak sabelean*.

**bertsolari eta idazlea** Euskal Filologian lizentziaduna. Gasteizko Udaletxean kultur-teknikari gisa aritu zen 1985etik 1992. urtera arte. Orduz geroztik sormen lanetan murgilduta dago. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian txapeldun izan zen 1993, 1997, 2001 eta 2005eko edizioetan; finalista izan zen, berriz, 1986, 1989 eta 2009koetan. Zenbait argitalpen ditu: *Zozoak beleari*, Jon Sarasuarekin gutunizketa: *Pausoa noiz luzatu* eleberria, Euskadi Saria zabalpen arloan; eta *Hogeitabina*, bertsogintzari buruzko gogoeta-liburua. Disko bat ere plazaratu zuen 1994. urtean: *Tximeletak sabelean*.

**PELLO RAMÍREZ**
Ordizia, 1966

**músico** Comenzó sus estudios tocando el acordeón y durante una década participó en muchos campeonatos a lo largo de Euskal Herria y Europa. Cursó los estudios de violonchelo en el Conservatorio de



Donostia. Ha participado en varias grabaciones discográficas y ha acompañado en directo a músicos como Benito Lertxundi, Xabier Lete, Dulce Pontes, Alos Quartet y Ainhoa Garmendia. Además, ha realizado las bandas sonoras de varios documentales, series de televisión y funciones de teatro: *Mugaldekoak, Apaizac Obeto*, la sintonía del Campeonato de Bertsolarismo de Gipuzkoa y el documental *Gutik zura*. También ha publicado tres discos con sus composiciones: *Haize Oihalak, Eskuz Lurrari* e *Itsasoaren Emazteak*.

**musikaria** Akordeoiarekin hasi zituen haurtzaroan musika ikasketak eta hamar urtez hainbat txapelketatan parte hartu zuen, Euskal Herrian eta Europan. Donostiako Kontserbatorioan goi mailako biolontxelo ikasketak egin zituen. Hainbat talde eta abeslarirekin egin du lan disken grabaketetan eta zuzenekoetan: Benito Lertxundi, Xabier Lete, Dulce Pontes, Alos Quartet, Ainhoa Garmendia... Zenbait telesail, dokumental eta antzezlanetarako soinu bandak ere egin ditu: *Mugaldekoak, Apaizac Obeto*, 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sintonia, *Gutik zura* dokumentala... Bere konposizioez osaturiko hiru disko ere kaleratu ditu: *Haize Oihalak, Eskuz Lurrari* eta *Itsasoaren Emazteak*.



**GARIKOITZ MENDIZABAL**
Zestoa, 1973

**músico** Premio de Honor fin de carrera y Graduado Superior en Txistu por el Conservatorio Superior de Música de Donostia. Obtuvo dos primeros premios en el Concurso de Txistularis del País Vasco y en 2002 consiguió el primer premio en el Certamen de Bandas de Txistularis, con la Banda Municipal de Txistularis de Vitoria, de la que fue director. Ha actuado como solista con agrupaciones como la Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta Sinfónica de la Comunidad de Madrid, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Chun Cheon Philarmonic Orchestra o Gyuonbook Philarmonic Orchestra de Corea del Sur. Colabora con grupos de música folk como Korrontzi y comparte escenario con artistas como Carlos Núñez o Kepa Junkera. Tiene una

amplia discografía y actualmente es Director de la Banda Municipal de Txistularis de Bilbao, puesto que compagina con su carrera como solista.

**musikaria** Goi Mailako Gradua du Txistuan eta karrera amaierako Ohorezko Saria lortu zuen Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Euskal Herriko Txistularien Lehiaketan bi sari irabazi zituen eta 2002an lehenengo saria eskuratu zuen Txistularien Banden Sariketan, Gasteizko Txistularien Bandarekin. Banda horren zuzendaria ere izan da. Musika-talde ospetsu ugarirekin egin du lan bakarlari moduan: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Madrilgo Erkidegoko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Hego Koreako Chun Cheon Philarmonic Orchestra, Gyonbook Philarmonic Orchestra... Folk musika taldeekin ere kolaboratzen du, besteak beste, Korrontzirekin, eta Carlos Nuñez eta Kepa Junkerarekin hainbat musika proiektu gauzatu ditu. Diskografia zabala du. Bilboko Udal Txistularien Bandaren zuzendaria da egun eta bakarlari moduan ere aritzen da.

**GERMÁN ORMAZABAL**
Tolosa, 1966

**músico** Realiza estudios superiores de piano y acordeón en el Conservatorio Superior de Música de Donostia. Es licenciado en Derecho por la EHU-UPV. Fue Director General de la Orquesta Sinfónica de Euskadi durante una década (1996-2005). Desde el año 2006 trabaja en la empresa privada, siendo en la actualidad directivo del Grupo Velatia.

**musikaria** Piano eta akordeoi goi mailako ikasketak egin zituen Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan. Zuzenbidean lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Hamar urtez (1996-2005) Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Zuzendari Nagusia izan zen. 2006tik enpresa pribatuan murgildurik dabil eta, gaur egun, Velatia Talde familiarraren Zuzendaritza Batzordeko kide da.



www.baluarte.com BaluartePamplona @baluarte palaciobaluarte

MAI 7 MAY

# SIMPLE MINDS

ACOUSTIC LIVE'17




DL NA 896-2017

FUNDACION BALUARTE FUNDAZIOA

La Fundación Baluarte programa la temporada de espectáculos. Apoyando la cultura construimos Navarra.

*Baluarte Fundazioak ikuskizunen denboraldia programatzen du. Kultura babestuz Nafarroa eraikitzen dugu.*

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra
Obra Social "la Caixa"
Fundación CajaNavarra
Autopistas de Navarra
El Corte Inglés
Fundación Iberdrola
Coca-Cola
gasNatural Distribución
Mondragon Humanity at Work